



ERREGUETAN ARI NINTZELA



Bertso honen egilea: Justo Maria Mokoroa (1901 Tolosa, Gipuzkoa - 1990 Bilbo, Bizkaia).

Bertsoaren berri

“Erreguetan” bertso sorta emakume baten ahotik idatzita dago. Iñaziotxorekin ezkondu nahi du baina haren amak ez du begi onez ikusten eta neskak monja edo lekaime sartzea erabakitzen du. Lekaime sartuagatik, beti oroituko da Iñaziotxorekin: “goiz gauetako errezueta ez naiz ahaztuko zugatik”.

“Debekatutzen duten ezkerro ezkonduzea munduan /saia gaitezen ahaleginean alkartutzeko zeruan.”

Antzerki bat ere bada bertso hauekin, “Garro usaia” izenekoa.

Erreguetan ari nintzela
hartu nuen **albistea**
ama zureak nahi ez duela
biok **alkarganatzea**
nola ez neukan oraindiokan
gauz hori **erabakia**
berbertatikan asmo hartzen det
lekaimetan **sartutzia**.

